2015EKO ABENDUAREN 4KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko abenduaren lauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Imanol Aran Barandiaran.

Marian Zufiria Apeztegia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2015eko azaroaren 20an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2015eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 87 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HEMEZORTZI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA SEI ZENTIMO (38.132,86 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 15-11-10 zbk.dun esped.: abenduaren 1etik aurrera astean 12 ordutik 2 ordura murriztea, bere osasun egoerak hobera egin duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.

- 15-11-01 zbk.dun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2015eko azaroaren 14tik, heriotzagatik.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 15-01-15 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntza ematea abenduko hilabetean eta alokairuko gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntza ematea abenduko hilabetean. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 14-01-004 zbk.dun etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntza ematetik 250 €ko dirulaguntza ematea urriko hilabetetik, eta etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilabetean 46,25 €ko dirulaguntza ematetik 92,50 €ko dirulaguntza ematea urriko hilabetetik. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Orobione Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteari dirulaguntza.-

Orobione jubilatu eta pentsiodunen elkarteari 3.100,00 €ko dirulaguntza ematea 2015. urteko ekintzen garapenerako. Dirulaguntza hau 2015. urteari dagokion bigarren zatia izango da.

Entitateei laguntza.-

2015. urteko dirulaguntzak entitateei honela ematea:

- ODOL EMAILEAK: 1.317 €
- GURUTZE GORRIA: 3.510 €
- GIZAKIA HELBURU: 1.100 €
- NAGUSILAN: 50,45 €
- AZKI, EMAKUMEEN TALDEA: 719,55 €

IV.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEKO LAGUNTZAK.-

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

- Goierriko Euskal Eskolari Mintzalaguna proiektua aurrera eramateko 2015eko udal aurrekontuan izendatutako bigarren zatiaren ordainketa, guztira 5.050 €.

- Goierriko Euskal Eskolari, Maizpide Euskaltegiarekin eta Udalarekin antolatutako Gerriko Ikerlan Bekarentzat 2015eko aurrekontuan aurrikusitako dirulaguntza ematea, 5.000 €.

- San Benito ikastolari 2015eko udal aurrekontuan izendatutako dirulaguntzen bigarren zatia ordaindu. Udala eta ikastetxearen artean izenpetutako hitzarmenaren araberako 22.660 €ren erdia, hau da, 11.330 €.

Aitor Gartzia Zufiriak euskarazko eskoletako dirulaguntza eskaera egin zuen eta aurreko gobernu batzarrera aurkeztutako zerrendan Udalak ez zuen barneratu. Ordainketa egin zaio baina gobernu batzarrari akats honen berri ematen zaio.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak jakinarazi du, Ifarra-Hegoa programaren barruan "Asociación Manos Acción Solidaria" taldeari 4.062,50€ eman eta azaroaren 27an ordaindu ondoren azaroaren 30ean Ertzaintzaren deia jaso dugula talde hori iruzur ekonomikogatik salatua izan dela eta gaia epaitegian dagoela. Udala epaitegian aurkeztu beharko da diru zenbateko hori errekuperatzeko, eta Gertu Aholkularitzaren esku utzi da jarraipena egitea.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO UDALA * AYUNTAMIENTO LAZKAO *